

## Argazkian irribarretsu

**A**

uzoko gorilaren mehatxu kutunetako bat da: “Zure aurpegiarekin gelditu naiz”. Alegia, memorian atxikirik mantenduko zaitut. Alegia, hobe duzu hemen-dik aurrera kontuz ibiltzea.

Horixe bera egiten du poliziak ere jendea grabatzen jarduten duenean: ez da saiakera zine-matografikoa, ezta mugimendu apurtzaile berri baten hastapena ere, betiko mehatxu makarraren gauzatzea baizik. Benetan ari dira gure aurpegiarekin geratzen, ez memoria, baizik eta bideo-teknologia lagun.

Artxibo erraldoi horrekin gero zer egingo duten beste gauza bat da –ezertxo ere ez, akaso– baina mehatxua bete egin dute. Aurpegiarekin gelditu dira, beren ondasuna da hortik aurrera, eta ez gurea. Eta gero, antropologoren batek kontaktzen badigu ez dakit zein oihanetako tribuak beldurra diola argazki-kamerari, arima lapurtzen duelakotan, barre egingo dugu. Bejondeigula.

Dena den, gaur egun –eta poliziari meriturik kentzeko inongo asmorik gabe– gutako ia edonoren eguneroko bizimodua grabatuta gelditu daiteke kaleetan barrena kokatu dizkiguten kamera mordoari esker. Apustu egingo nuke posible litzatekeela egun bateko edonoren joan-etorria birkonposatzea kamera horiei guztiei esker. Trafiko-kamerak, kutzazain automatikoetako kamerak, eraikin ofizial eta ez hain ofiziale-tako kamerak.

Muturreko kasu bat. Ezagutzen ez nuen hiri batean apartamentu bila nembilela erdialdeko eraikin itxuroso bat aholkatu zidaten. “Hor baino hobeto ez zara inon egongo, oso leku segurua da” ziurtatu zidan harrotasunez apartamentu-bloke hura gomendatu zidanak. Zergatik galdetu nuen, gertu zuen erantzuna: “Kameraz josita dago”. Eraikin hartan apartamentu txiki bat



DANI BLANCO

Katixa Agirre

Urkiza

Padrón

hartu nuen errentan azkenean. Eta egia zen: izkina guztietan zeuden ditzosozko tramankuluak, begi ilun eta alienigenak, sabaira itsatsita. Hainbeste zeuden non, apartamentu barruan ere kameraren bat edo beste egongo zela pentsatzera ailegatu nintzen –azken finean, inork ez zidan kontrakorik esan–. Zer zen goiko zera hori? Ke-detektagailu bat

edo kamera bat? Argiak itzalita ibiltzen nintzen gehienetan.

Jada ez naiz bertan bizi baina hor non-baiten egongo dira nire eguneroko irudiak: ni goizean, lo-aurpegiarekin, ni ikuztegirra joaten, ni erdialdeko atzamarra erakusten pasillo bukaerako kamerari. Hori, apartamentu barruko kamerarena paranoia hutsa baldin bada, noski.

Askotan ordea, irrikaz espero dugu besteak gure aurpegiarekin gelditu daitezen. Gure irudia saldu baino, erregalatu egiten dugu. Askatu erreportari bat eta kameralaria bat edozein kaletan. Ikusiko duzu zeinen azkar etorriko diren umeak eta helduak, erreportariaren atzealdetik keinuak egitera eta norberaren aurpegia agerian uztera. Famosoak izan nahi dugula izango da. Eta inoiz baino errazago jartzen digute.

Eta argazkiez ari garela, bururatu zait orrialde honetan agertzen diren hiru argazkien artean, nirea dela zaharrena orain. Akaso horregatik hasi dira horizatzen argazkiaren ertzak? Bi argazki desagertu eta bi aurpegi berri sartu dira azken aste haue-tan. Beteranoena naiz hemen bat-batean. Ez da ardura makala, aizue. Beste argaz-

kientzako/kideentzako aholkurik ez dut ordea. Desioak besterik ez. Eta onak guztiak. Alde egin dutenentzat, bidaia on eta atsedeen goxoa. Etorri berri direnentzat, ttakunkada ozenak eta eztabaida sutsuak. Goiko argazki horietan irribarretsu jarraituko dugu, egon lasai. ■



Beteranoena naiz hemen bat-batean. Ez da ardura makala, aizue. Beste argazkietako kideentzako aholkurik ez dut ordea. Desioak besterik ez. Eta onak guztiak. Alde egin dutenentzat, bidaia on eta atsedeen goxoa

